

Denborazko koktelak

Iruditzen zait batzuetan hiru jende mota dagoela: iraganari konektaturik bizi dena, orainean bakarrik bizi dena eta etorkizunean esperantza guztiak jartzen dituen. Batek pentsa lezake, bere barne joera nolakoa den, beste bi kategoriatakoak “gai-xorik” daudela. Talde hauen arteko ezin ulertua, edonola ere, oso sakona da. Jakina, jende gehienok badugu gure baitan hiru joera hauen arteko konbinaketa bat –koktel horrek egiten gaitu berezi– eta gutxi dira joera bakar baten menpe bizi direnak. Egia esan, joera hauetako bakar batean erabat murgiltzeak heriotzara garamatza.

Etorkizunaren utopian bizi direnekin hasiko naiz. Hauentzat oraina paisaia desolagarria da eta erdeinua baino ez du merezi; areago, irauli egin behar da. Iragana, Utopiatarrentzat, etorkizun amestua gauzatzeko bitarteko bat izatera mugatzen da, argudio historikoen erreserba bat gehienez ere, baina ez dauka berezko interesik ezta egiazko sustantziarik. Utopiatarrentzat, jende honen bertsiarik nahasi gabeenean, orainean bizi garen jendeok ere ez dugu berezko baliorik eta sakrifikuak izan gitezke Utopiaren gauzatzearen mesedetan baldin bada. Esan behar da, jende hauen defentsarako, batzuk (ez guztiak) prest daudela beraien buruak ere sakrifikatzeko, ez besteenak bakarrik. Hauek dira Utopiatar nobleenak, ala zoroenak, nondik begira.

Orainean bizi nahi dutenak oso bestelakoak dira. *Carpe diem* litzateke berauen lema (edo lemaren bertsiio eguneratua –ondo pasa– zeren latina beraiantzat ez baita existitzen, iraganekoa izanki). Oso aspaldikoak diren jarrera existentzialak defenditzen dituzte (hedonismoa ez zen, noski, bart arratscan asmatu), baina ez dute horren kontzientzia izpirik ere eta uste dute iraganetik libratu-rik bizi direla, benetako bizitzan dauden bakar-rrak direla, beste bi joer-eretako jendeak frustratu batzuk direla (eta ez



DANI BLANCO

Mr Apalategi

Basterretxea

Olasagarre

zaie arrazoirik falta). Ondo pasatzaile erradikalenak gaindosiz hil ohi dira eta hain joera muturrekoan bizi ez direnak ere pultsio- en gatibu dira. Esan genezake titia eskatzen duen niniaren psikologia dela berauena. Sentitzen duten gosea oihi eta negarra eragiten duen horietakoa da eta oraintxe bertan asetu behar izaten dute. Normalean nahiko jende inofentsiboa da Ondo

pasatzailea eta osagai ezinbestekoa gure gizarte festiboetan nonahi antolatzen diren “ospakizunak” jendeztatzeko, kopurua egiteko. Kontsumo gizartea da jende honen zerumuga gaindiezina eta gozatzea da daukan betebeharrak, bere zoriona eta madarikazioa aldi berean.

Malenkoniatsuek, berriz, Tamagochi bat bailitzan daramate beraiekin edonora iragana. Tamagochiak animalia birtual elektronikoak dira, etengabeko zainketa eskatzen dutena hilko ez badira. Iraganak bere beharra daukala sinetsi nahi du Malenkoniatsuek eta ez alderantziz (Tamagochiak bere beharra duela sinetsi nahi duen bezala jabeak), nahiz garbi dagoen iragana objektu birtuala dela; are okerrago, berak uneoro berrasmatu eta manipulatzeko duen objektua, bere oraingo beharren arabera. Utopiatarrek bezala, Malenkoniatsuek badaki orainaldiak pairarazten dizkion frustrazioei aurre egiten. Utopiazaleak bere frustrazioa ameskeria iraultzailearekin konpentsatzen badu (zenbait kasutan ekintza bortitzera lerratuz, bere indar fisikoa deskubritu berri duen haur mukitsuaren antzera), Malenkoniatsuek kakagurari eustek dakarren plazera deskubritu duen haurraren antza du. Zenbat eta luzeago gorde kaka –hots, Iragana, bere-berea duen iragan kuttun hori,

berak moldatutakoa, berridatzitakoa, idealizatua– bere hestectan, orduan eta bere buruaren jabeago sentitzen da, buruaskiango, autarkikoago, orain frustragarri horrekiko askeago.

Nolakoa da zuen koktela, Josi eta Juanjo? ■

Iruditzen zait batzuetan hiru jende mota dagoela:
iraganari konektaturik bizi dena, orainean bakarrik bizi dena
eta etorkizunean esperantza guztiak jartzen dituenena (...).

Nolakoa da zuen koktela, Josi eta Juanjo?